Urteko jarraipen-txostena
ENKARTERRIKO ESKUALDE-PLAN ESTRATEGIKOA
2023

BIC BIZKAIA
EZKERRALDEA
UP! EUSKADI

Enkarterriko Eskualdeko Plan Estrategikoko 58 jarduketa.

Jarduketa horien helburua lehentasunezko ekite-eremuak indartzea da, zenbait funtsezko eremutan: ekonomiaren suspertzea, enplegua, gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea, eta mugikortasuna eta jasangarritasuna.

6 trakzio-proiektu

1. BARNEKO ETA KANPOKO MUGIKORTASUNA HOBETZEA, BEREZIKI TRENBIDE-AZPIEGITURA ETA -ZERBITZUA
   17 jarduketa.
2. AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN INTERKONEXIOA
   13 jarduketa.
3. HEZKUNTZA- ETA LAN-MUNDUAN INTEGRATZEA: LANBIDE-HEZIKETA GARATZEA ETA LANERATZEA
   16 jarduketa.
4. BANDA ZABALA HEDATZEA LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO
   3 jarduketa.
5. ENPRESA-GUNEAK SORTZEA
   4 jarduketa.
6. ENKARTERRIN BIOEKONOMIA SUSTATZEA
   5 jarduketa.

58
JARDUKETA

ENKARTERRI		JARDUKETAK	EJ	BFA
EK1 Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua hobetzea	EK1.01	L4 proiektuaren kanpaina geoteknikoa	x	
	EK1.02	Eraikuntza-proiektua idaztea (2022ko amaiera)	x	
	EK1.03	Ariz terminaleko seinaleztapena	x	
	EK1.04	Ariz terminala berritzea	x	
	EK1.05	RVPV 2021 azterlana (Balmaseda Irauregiko tartea)	x	
	EK1.06	Irauregi-Lutxana bidea berritzea	x	
	EK1.07	Malabrigo – Traslaviña BI-630 obra		x
	EK1.08	La Herrera – Malabrigo BI-630 obra		x
	EK1.09	Traslaviña – Turtzioz BI-630 obra		x
	EK1.10	La Escrita – El Callejo BI-630 obra		x
	EK1.11	El Callejo – La Cadena BI-630 obra		x
	EK1.12	Mugikortasun jasangarria: BIZIPARK		x
	EK1.13	Mugikortasun jasangarria: BIZIPUNTO		x
	EK1.14	Biribilgunea Traslaviñan		x
	EK1.15	Gueñes-Sopuerta, bide-zoruak hobetzea		x
	EK1.16	Kadaguako tunelak		x
	EK1.17	Kadagua ibaiaren gaineko oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea Arbuion		x
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa	EK2.01	Autokarabanen aparkaleku-eskaintza handitzea	x	
	EK2.02	Errealitate birtual areagotua	x	
	EK2.03	Turismo-eskaintza guztia biltzen duen kudeaketa-plataforma digitala	x	
	EK2.04	Turismo aktiboen interkonexioa mugikortasun jasangarriarekin	x	
	EK2.05	Enkarterri Bike & Walking	x	
	EK2.06	Lurraldeko ekitaldi berezien garapena	x	
	EK2.07	Zallako Artisten Gunea	x	
	EK2.08	Jarduketak La Encartada Fabrika Museoan		x
	EK2.09	Hobekuntzak Karpinean		x
	EK2.10	Turismoa sustatzeko ekitaldia Enkarterrin		x
	EK2.11	2022ko Europa Kirol anitzeko Triatloi Txapelketa		x
	EK2.12	1000 Gradutan		x
	EK2.13	Lankidetza UNESCO Katedrarekin		x

2023an bilduriko jarduerak

ENKARTERRI		JARDUKETAK	EJ	BFA
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: Lanbide Heziketa garatzea eta laneratzea	EK3.01-10	San Viator (10 jarduketa)	X	
	EK3.11-13	Maristak, Zalla (3 jarduketa)	X	
	EK3.14	Eskola-absentismoa murrizteko programa		X
	EK3.15	Eskola-mugikortasuna	X	
	EK3.16	IKTetan espezializatutako Lanbide Heziketako zentro publikoa Balmasedan	X	
EK4 Eskualdea digitalizatzeko banda zabala hedatzea	EK4.01	5G hedapen-proiektuaren diseinua, plangintza eta jarraipena	X	
	EK4.02	5G erabilera-kasuak programa - Drone-laborategia	X	
	EK4.03	BFAren eremu zuriak (banda zabala hedatzea)		X
EK5 Enpresa-guneak sortzea	EK5.01	Zallako Longar lursaila erostea (Elkartegi)	X	X
	EK5.02	Gueñesen eraikina erostea	X	
	EK5.03	Elkartegia eraikitzea	X	X
	EK5.04	Gueñesko eraikina birgaitzea	X	
EK6 Enkarterrin bioekonomia sustatzea	EK6.01	Industria-proiektuak	X	
	EK6.02	Bioekonomiako HUBa	X	
	EK6.03	Bioekonomiaren arloko prestakuntza-proiektua garatzea	X	
	EK6.04	Basque Design Center ekipamendua		X
	EK6.05	Basque Design Center formakuntza		X

2023an bilduriko jarduerak

1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Amaituta	34
Egikaritzen	15
Diseinatzen	9
Hasi gabe	0
Ezeztaturik	0

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETEN AURREKONTU-EGIKARITZE OROKORRA

1. EK

Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

5.000.000 €
4.278.000 €

2. EK

Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa

4.000.000 €
3.972.795 €

3. EK

Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

3.000.000 €
3.000.000 €

4. EK

Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

4.000.000 €
3.348.577 €

5. EK

Enpresa-guneak sortzea

5.000.000 €
5.000.000 €

6. EK

Enkarterrin bioekonomia sustatzea

3.000.000 €
3.000.000 €

1. EK	% 85,5
2. EK	% 99,2
3. EK	% 100
4. EK	% 83,6
5. EK	% 100
6. EK	% 100

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Egikaritutako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Aurrekontu egikarituta	Aurrekontu-egikaritzea
24.000.000 €	**22.599.643 €**	**% 94,2**

1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN AURREKONTU-EGIKARITZE OROKORRA

1. EK

Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

28.420.995 €
5.560.000 €

2. EK

Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa

6.486.253 €
2.441.779 €

3. EK

Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

415.000 €
0 €

4. EK

Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

1.300.000 €
1.300.000 €

5. EK

Enpresa-guneak sortzea

5.000.000 €
947.747 €

6. EK

Enkarterrin bioekonomia sustatzea

150.000 €
180.158 €



1. EK	% 19,6
2. EK	% 37,5
3. EK	% 0
4. EK	% 100
5. EK	% 19
6. EK	% 120

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Egikaritutako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Aurrekontu egikarituta	Aurrekontu-egikaritzea
41.772.248 €	**10.429.684 €**	**% 25**

PROIEKTU ERAGILEEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

TRAKZIO-PROIEKTUAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUA	EGIKARITUA	% egikaritua
EK1	Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea	EJ	5.000.000	4.278.000	86%
		BFA	28.420.995	5.560.000	20%
		GUZTIRA	**33.420.995**	**9.838.000**	**29%**
EK2	Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa	EJ	4.000.000	3.972.795	99%
		BFA	6.486.253	2.441.779	38%
		GUZTIRA	**10.486.253**	**6.414.574**	**61%**
EK3	Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea	EJ	3.000.000	3.000.000	100%
		BFA	415000	0	-
		GUZTIRA	**3.415.000**	**3.000.000**	**88%**
EK4	Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea	EJ	4.000.000	3.348.577	84%
		BFA	1.300.000	1.300.000	100%
		GUZTIRA	**5.300.000**	**4.648.577**	**88%**
EK5	Enpresa-guneak sortzea	EJ	5.000.000	5.000.000	100%
		BFA	5.000.000	947.747	19%
		GUZTIRA	**10.000.000**	**5.947.747**	**59%**
EK6	Bioekonomia sustatzea	EJ	3.000.000	3.000.000	100%
		BFA	150.000	180.158	120%
		GUZTIRA	**3.150.000**	**3.180.158**	**101%**
EK EPE GUZTIRA			**65.772.248**	**33.029.056**	**50%**
EUSKO JAURLARITZA			**24.000.000**	**22.599.372**	**94,16%**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			**41.772.248**	**10.429.684**	**25%**

1. EK. Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

TRENBIDE-PROIEKTUAK: Trenbide-azpiegiturekin lotutako jarduketen helburua trenbide-sarea hobetzea da, etorkizunean C4 linearen (Balmaseda-La Concordia) ordutegi-maiztasunak hobetze aldera. C4 linearen etorkizunean aurrera egiteko, funtsezkoa da, batetik, Irauregin metroaren 4. linea zabaltzea (L4), linea horri berari zerbitzu emango dioten kotxetegiak kokatzeaz gain, eta, bestetik, Arizko terminala berritzea, horri esker, Irauregiko kotxetegiak Arizko trenen mantentze-tailerrarekin lotu ahal izango baitira.
Jarduketa horiek aldez aurreko urratsak dira Abandoko geltokia Zorrotza eta Alonsotegirekin lotzeko —Irala, Errekalde eta Basurtu auzoetan geralekuak eginez—.

HOBEKUNTZAK BI-630 ERREPIDEAN: Bide hori berritzeko, bost tartetan banatu zen, eta horietako bat amaitu da: Malabrigo-Traslaviña. Ostera, beste laurak ingurumen-izapidearen zain daude.

BIDE-MUGIKORTASUNA HOBETZEA: 2023an, lehentasunezko jarduketa-eremu gisa bultzatu da eskualdean mugikortasun-jarduera berriak abian jartzea: Traslaviñako biribilgunea, bide-zoruak hobetzea nahaste epelekin, Sopuerta eta Gueñes tartean ekonomia zirkularra sustatzeko, eta Kadaguako tunelak egokitzea eta modernizatzea.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA: Bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko bi programa daude martxan 2022az geroztik: BIZIPUNTO, bizikletak konpontzeko eta garbitzeko geltokiak, erabilera librekoak eta doakoak, eta BIZIPARK, bizikletentzako aparkaleku seguruak. Horien helburua herritarren artean bizikleten, eta, zehazki, bizikleta partikularren ohiko erabilera sustatzea da.
2023an, Alonsotegiko Arbuio auzoan Kadagua ibaiaren gainean oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabide bat eraikitzeko proiektua idatzi da.


METRO L1
ZORROTZA
TRANVÍA
METRO L3
BILBAO
BASURTO
ESTACIÓN INTERMODAL ABANDO
ALTERNATIVA B
IRALA
REKALDE
RENFE
FEVE
IRAUREGI
ALTERNATIVA A

L4 Bilbo

2. EK. Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa.

AZPIEGITURA TURISTIKOEN PROIEKTUAK: 2023an zenbait ekintza amaitu dira Enkarterri eskualdera azpiegiturak, zerbitzu digitalak eta mugikortasun jasangarria eramateko, guztia ere jomuga turistiko gisa posizionatzea bultzatzeko (autokarabanen aparkalekua, errealitate birtuala, plataforma digitala, bizikleten alokairua). Aurreikusten da 2024an amaituko dela mugikortasun jasangarria duten aktibo turistikoak elkarri konektatzeko jarduera, kargagune elektrikoak instalatuta.

SORMEN-ARTEEN PROIEKTUA: Zallako Guatan sormenezko arteak garatzeko aukera-gune bat sortzea. 2022. urtean, Udalak higiezina erosi zuen eta kanpoko fatxada egokitzeko lanei ekin zien; era berean, amaitu zuen bertan garatu beharreko kultura-proiektuaren diseinua. 2023an ia erabat amaitu da proiektua, eta igogailua egiteko zain geratu da.

ONDAREA BERRESKURATZEA: La Encartada Fabrika-Museoak eta BBK Karpin Faunak, zeinak eskualdeko kultura- eta turismo-baliabideak baitira, aurrera egin dute balioa emateko aurreikusitako hobekuntzetan. Lehenengo kasuan, lau makina berreskuratu dira; proiektua eguneratu da eta turbina abiarazteko eta kanaleko obrak kontratatzeko pleguak idatzi dira. Bigarrenean, terrasauroa eta Karpin Faunara sartzeko pasabidea hobetzeko obrak egin dira.

TURISMOA SUSTATZEKO EKITALDIAK: 2022an, Enkarterrik turismoa sustatzeko azoketan parte hartu zuen (Merkat de Merkats, bai eta visitenkarterri&Basquemountains helmugako marketin-kanpainan ere), eta, horretaz gainera, Enkarterriko Duatloi Krosa egin da, bai eta 1000 GRADUTAN musika-zikloa ere Encartada Fabrika Museoan, zeina Karrantzako Dolomitas museoan erreproduzitu baitute 2023an.
2023an, aholkularitza tekniko-zientifikoko lan bat egin da, UNESCO Katedrarekin lankidetzan. Lan horrek Bilbo Bizkairako turismo industrialeko produktu bat garatzeko oinarriak ezartzen ditu, bai Enkarterriko bai Ezkerraldeko EPEek ezarritako helburuei eta irizpideei jarraikiz.

Artisten Gunea

Errealitate birtuala

Dolomitas Karrantza

Bikeak

3. EK. Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

PRESTAKUNTZA-GELA BERRIAK: Sopuertako San Viator eta Zallako Maristak Lanbide Heziketako ikastetxeek ikasleak teknologiara, energiara eta bioekonomiara bideratutako prestakuntza-adar berrietan gaitzeko gelak eta tailerrak ezarri dituzte.

HEZIKETA-ZIKLO BERRIAK: Bi heziketa-ziklo ezarri dira: bata zahartze aktibo eta osasungarriarekin lerrokatua, eta bestea robotikako eta 3D inprimaketako ekipamenduekin lerrokatua (mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko teknikaria eta fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko teknikaria). Gainera, ibilgailu hibridoen eta elektrikoen mantentze-lanetan espezializatzeko ikastaro bat ere gehitu da.

TAILERREN ERABILERA: Instalazio eta ekipamendu guztiak zabalik egongo dira ekintzaileentzat, enpresentzat eta erakundeentzat, eta horri esker:
- Eskualdean irakaskuntza arautuaren prestakuntza-eskaintza areagotuko da.
- Enplegurako prestakuntzaren arloko prestakuntza eskainiko da.
- Ekintzailetza bultzatuko da.
- Enpresekin lankidetza-proiektuak eta berrikuntza-proiektuak garatuko dira.
- Eta Enkarterriko pertsonen laneratzea biziki hobetuko da.

INBERTSIO OSAGARRIAK: San Viator ikastetxeak baliabide propioak erabili ditu eraikin bat birmoldatu eta beste bat eraikitzeko, lantegi sortu berriak bertan jartze aldera.

2023. URTEKO EKINTZA BERRIAK (eskola-mugikortasuna eta LHko ikastetxe publikoa): San Viator eta Maristas ikastetxeetan eskualdeko ikasle, ekintzaile, enpresa eta erakundeentzako gela tekniko ireki berriak ezartzeaz gainera, 2023an eskola-mugikortasuneko arazo bati konponbidea eman zaio, Enkarterritik urrunen bizi diren Batxilergoko ikasleekin pentsaturik. Ildo beretik, eskualdean IKTetan espezializatutako LHko ikastetxe publiko bat ezartzeko urratsak egiten ari dira.



Bioekonomia-laborategia



Elektromugikortasun-tailerra

Inkubagailua

Etxebizitza adimenduna

4. EK. Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

DRONEEN HEGALDI AUTONOMOEN (5G) LABORATEGIA: 2023an, helburu bikoitza duen baldintza-agiri bat diseinatu da: Alde batetik, 5Garekin konektatutako droneen hegaldi autonomoak esperimentatzeko laborategi bat ezartzea, eta, bestetik, kontratuaren adjudikaziodunari zuzeneko dirulaguntza ematea, banda zabala hedatu ahal izateko. Laborategi horrek zerbitzu partekatuak emango dizkie EUSKO JAURLARITZAKO Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari (URA, EEE, SPRI, HAZI, IHOBE, etab.), bai eta proba-laborategi hori erabiltzeko interesa izan dezaketen beste administrazio batzuei ere.

5G ERABILERA POTENTZIALAK: Enkarterrin geografikoki banatutako droneak mobilizatzea, urrutitik erabili ahal izateko, eskualdeko gorabeheren aurrean lehen irudiak eta datuak hartzeko: (Adibideak)

URA. Ur-goraldiak, elur-jausiak, ibaietako isurketak, ur-bazterretako jarduerak monitorizatzea, eta abar.

IHOBE. Ingurumen-datuak ontziratutako sentsoreen bidez hartzea, eta abar.

HAZI. Izurriteak monitorizatzea, ganadua banatzea, irudiak adimen artifizialeko teknologiekin aztertzea, eta abar.

EEE. Droneen teknologia energia berriztagarrien esparruan aplikatzea.

.....

EREMU ZURIAK: 2023an jarraitu egin da banda zabala hedatzen, eta beste 208 etxebizitzatara iritsi da; guztira 558 etxebizitza gauzatu dira. Proiektuan 664 etxebizitza biltzen dituzten 60 xede-eremu zehaztu ziren 8 udalerritan (Alonsotegi, Artzentales, Galdames, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta eta Zalla).

5. EK. Enpresa-guneak sortzea

ELKARTEGIA ZALLAN: El Longar Industrialdean lurzati bat erosi da Elkartegia jartzeko. Eraikin industrial bat izango du —oinplanoan 2.500 m²-ko azalera izango du—, eta 1.786 m²-ko bigarren eraikin bat —industria- eta bulego-moduluetan banatuta egongo da—. 2023an obrak lizitatu dira eta 2024. eta 2025. urteetan gauzatuko direla aurreikusten da.
Gune hori 6 eta 8 espazio dituzten bi eraikinen bidez antolatzen da. Eraikin horiek enpresen beharretara egokitu daitezke.

GUEÑESEN ERAIKINA EROSTEA: 2.800 m²-ko azalera duen higiezin bat erosi da; Bioekonomiako Hub bat sortzeko proiekturako erreferentzia izango da. 2023an higiezinaren zati bat eraitsi da eta eraikinaren egituraren analisia egin da. Hala, egiaztatu da badirela kalte batzuk, eta ari dira kontuan hartzen birgaitze-proiektua idazterakoan. Obrak 2024an hasiko direla aurreikusten da, eta gauzatzeko epea urtebete izango da.

Zallako Elkartegia

Bioekonomiako Huba

6. EK. Enkarterrin bioekonomia sustatzea.

INDUSTRIA-PROIEKTUAK: Hiru enpresa-proiekturen bideragarritasuna identifikatu eta aztertu da: ardi latxaren artileari balioa ematea, zurezko zelulosatik zuntz-ehuna sortzea eta landare-ehunak sortzeko I+G+Bko enpresak sortzea.

BIOEKONOMIAKO HUBa: HUB honen helburua da bioekonomian oinarritutako enpresak sortzeko beharrezkoa den azelerazio- eta inkubazio-programa bat martxan jartzea. Horretarako, 2.800 metro koadroko eraikin bat erosi da Gueñesen. 2023an, bioekonomiako ideien eta proiektuen lehiaketa egin da Enkarterrin, eta garapen-fasean dauden 19 proiektuetatik 7 aukeratu dira.

PRESTAKUNTZA-PROIEKTUA: Prestakuntza-programa bat abian jartzea, bai lanbide-heziketaren eremuan, bai unibertsitatearen esparruan. San Viator, Hezkuntza Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Jasangarritasun Sailarekin aliantza bat lantzen ari gara, enbriogenesi somatikoaren laborategi bat eta landareak gizentzeko negutegi bat abian jartzeko, alor horietan prestakuntza eta ekintzailetza bultzatze aldera. 2024an enbriogenesi-protokoloak transferituko dira Neikerretik San Viatorrera, EK3 trakzio-proiektuko ekintzaren baten ildotik.

BDC: 2022an, Basque Design Centerri ekonomia zirkularra eta bioekonomia sustatzeari lotutako ekipamendua eman zitzaion, bai eta dirulaguntza bat ere, biomodarekin eta biofabrikazioarekin lotutako prestakuntza-programak egiteko.

berpiztu
Z.A.P
Lehentasuneko Jarduera Zonaldea
Zona De Actuación Prioritaria
ENKARTERRI
Enpresa-espazioak sortzea/
Creación de espacios empresariales
Eusko Jaurlaritzak finantzatutako Proiektua /
Proyecto financiado por Gobierno Vasco
Aurrekontu-esleipena ZAPs funtsak: 7,5 milioi euro
Epea: 2021-2023
Asignación presupuestaria Fondos ZAPs: 7,5 millones de euros
Plazo: 2021-2023
Bizkaia
azpiegiturak
Sprilur